


MarraziOak

13



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gaiterri
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



2021eko irailaren 27tik urriaren 1era
Undermount-en (Igeldo, Donostia)

Galtzagorri elkarte

galtzagorri@galtzagorri.eus

943 471 487

MARRAZIOAK XIII

BYE BYE, GIZONTXO!

TIPOAK, ESTEREOTIPOAK ETA ARKETIPOAK

HARKAITZ CANO eta IGNASI BLANCH

ZER:

Duela zenbait urte, emakumezkoaren errepresentazioan oinarritutako ikastaroa eskaini zuten Marrazioak jardunaldien baitan Ignasi Blanch marrazkilariak eta Harkaitz Cano idazleak “...*eta errauskine bere errautsetatik berpiztu zen*” izenburupean. Orduko hartan, artearen historian egin den emakumearen errepresentazioari buruz hausnartu, emakumezko pertsonaien estereotipoetatik urrundu eta emakumearen errepresentazio berriak eraikitzen saiatu ziren.

Bost urte beranduago, ikastaro haren B aldea proposatu eta estereotipoez haratago doan gizonezko berri baten marrazketari buruz modu kritiko batean hausnartuko dute Marrazioaken aurtengo edizioan: Binarismoaren tranpetatik ihes egin eta *alfa* maskulinitate zaharkituari muzin eginez, nola marrazten da egun gizonezkoa? Aldatu da batere duela hamarkada batzuetatik hona? Zeintzu dira mutiltasun berriaren ezaugarriak?

Rolez eta ofizioez haratago, gizonezkoak beren gorputzarekin duen balizko harremanari eta harreman horri buruz emakumezkoek duten ikuspegiari buruz eztabaidatzea da asmoa. Zeintzu dira adinaren adierazleak, denborak gorputzean utzitako markak? Zeintzu izan dira geure inguruan –familiar, lagunartean– ezagutu ditugun gizonezkoen erreferentziak eta nola eragin du horrek geure istorioetan marraztu izan ditugun pertsonaien karakterizazioan? Zerk sentiarazten gaitu deseroso eta zergatik?

Ekintzaz eta ogibidez desjabeturik, zein litzateke maskulinitatearen egiazko nortasuna eta keinua? Gizonezkoek mendeak daramatzate emakumezkoen era guztietako biluziak margoitzen, zer gertatzen da, ordea, emakumezkoek gizonezkoen gorputzak esplizituki margotzean? Berbera da batzuen eta besteen kasuan baimentzen den askatasuna eta gordintasun maila?

NOLA:

Gizonezko pertsonaien errepresentazioaren moldeez eta zergatiaz hausnartzeko, ilustrazioaren, literaturaren, artearen eta zinearen munduko hainbat adibide ekarriko dituzte irakasleek aurtengo MarraziOak jardunaldietara. Eta adibide horiek ikasleek egin beharko dituzten ariketa praktikoez lagunduko dituzte.

Irakasle zein ikasleak *Gizontxo* horren errepresentazioan arakutzen saiatuko dira, tipo, estereotipo eta arketipo horiek nondik datozen ikusten, horiei buruz hausnartzen:

- Nola irudikatu izan dugu maskulinitatea Historian zehar?
- Zeintzuk dira bere rolak eta itxurak gaur egungo ilustrazioan?
- Lortuko ote dugu inoiz estereotipoak deuseztatzea?
- Zergatik irauten dute? Badute abantailarik?

Galdera hauei erantzunak bilatzen saiatuz, irakurketa eta begirada berriak bilatu nahi dituzte tailerrean: maskulinitatearen errelato berritua gauzatzeko, ilustrazioa bitarteko gisa hartuta.

IRAKASLEAK:

Harkaitz Cano
Ignasi Blanch

NOIZ ETA NON:

2021eko irailaren 27tik urriaren 1era, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Donostia). * Donostiako autobusen 16-Igeldo lineak parean du geltokia. Linea honetako autobusak Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatzen dira.

Ordu-tegi jarraitua izango du tailerrak: **10:00etatik 18:00etara**, bazkaltzeko ordubeteko atsedena diarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman beharko dute.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Euskaraz ulertzeko gai izatea ezinbestekoa da.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskal Irudigileak (APIE-EIEP) Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN EMATEA:

- Ilustratzaile bakoitzak gustuko dituen 2 ilustrazio bidali beharko ditu, **argitaratuak edo ez, bere ustetan bere lana hobekien jaso edo biltzen duten 2 irudiak. Gainera, honako beste 2 ilustrazio berri egin eta bidali beharko ditu:**
 - 1- Gizonezko pertsonaia bat bere bizitzako objektu garrantzitsu batekin.
 - 2- Gizonezko pertsonaia hori bera, txikitan, bere gustukoena zen jostailuarekin edo gogokoena zuen jolasean jolasten.
Ilustrazio horietako bakoitzean pertsonaia bat baino gehiago ager daitezke (lagunak, familia...).
- Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:
 - Curriculum
 - NANren kopia bat
 - Posta elektronikoaren helbidea
 - Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du administrazioa@galtzagorri.eus –era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2021eko uztailaren 20a** izango da.

Aukeratutakoei 2021eko uztailaren 26ko astean erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.galtzagorri.eus / administrazioa@galtzagorri.eus